

ERABAKIA, ARKITEKTURA GOI ESKOLA TEKNIKOAREN ZUZENDARITZAK
2021/03/03ko BILKURAN EGINDAKO BILERARENA, PROIEKTUEN
IKASGAJETAN AURREBALDINTZAK EZARTZEAREKIN LOTUTAKO
MATRIKULAZIO-ARAUDIA APLIKATZEKO HIERARKIARI BURUZKOA.

2020ko ekainaren 17ko Eskola Batzarrean erabaki zen Ikasketa Plana aldatzea, Proiektu Arkitektoniko arloari eragiten diona. UPV/EHUko Gradu-batzordeak 2020/09/10ean onartu zuen aldaketa, eta 2021-2022 ikasturtean jarriko da indarrean.

Nolanahi ere, akordio hori ez dator bat graduiko ikasketen gestiorako 2021-22 ikasturteko araudian arautegia eta arlo horretako beste arautegi batzuk eta, betiere, ikasleek EHU irauteko araudiaren arabera (Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2010eko uztailaren 14an onartutako arautegia, 2014ko martxoaren 26ko erabakiaren bidez aldatua eta 2014ko apirilaren 15ean argitaratua EHAAn), zeinak, **2. artikuluan, Ikasturte bakoitzerako matrikulari** buruz hau adierazten baitu:

2.1 Ikasleak aurreko mailetan gainditzeke dituen irakasgai guztietan matrikulatu beharko du

2.2 Ikasleak gehienez 60 kreditu berritarako egin dezake matrikula.

ERABAKI DU:

Arkitektura Eskolako Zuzendaritzak 2021/03/03an hartutako erabakiaren berri eman nahi dizuegu, matrikula egiterakoan sor litezkeen gatazkak konpontzeko aukera emango duena.

Erabaki horrek honakoa ezartzen du:

- Beti gailenduko da goian aipatutako 2. artikuluko 2.2 puntua. Hau da, ikasleak kurtso bakoitzean gehienez 60 kreditu berri matrikulatu ahal izango ditu, nahiz eta aurreko kurtsoetan gainditu gabe dituen irakasgai guztietan matrikulatu ezin izan, baldin eta eragozpen hori proiektuetako irakasgaietan matrikulatu ahal izateko aurrebaldintzetatik badator. (2020/06/17an onartutako aurrebaldintzak).
- Salbuespen hori gauzatu ahal izateko, ikasleek ikasleen idazkaritzara joan beharko dute irailean, matrikula eta talde aldaketak egiteko epean, eta GAUR plataformak automatrikularen unean egitea galarazi dien matrikulazio eskaera egin beharko dute.

Donostian, 2021eko martxoaren 3an

JOSE MIGUEL RICO MARTINEZ
Arkitektura GETeko Idazkari Akademikoa